


Merkataritzako salmentak % 0,5 igo dira 2019ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Merkataritzak % 1,0ko igoera izan zuen 2019an salmentetan, termino errealetan

Handizkako eta txikizkako merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa barne hartzen dituen Merkataritza-sektoreak % 0,5eko igoera izan du salmentetan, termino errealetan, 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Merkataritzaren sektoreak % 0,2ko igoera izan du, prezio konstanteetan eta urtaro-eraginak ezabatu ondoren.

Merkataritzako koiuntura-indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. Merkataritza. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, urte arteko bilakaerak positiboak izan dira ibilgailu motordunen salmenta eta konponketarako (% 6,0 igo da) eta txikizkako salmentetarako (% 0,2 igo dira); handizkako merkataritzaren salmentak, berriz, % 0,3 murriztu dira. Lurraldeen arabera, Araban % 3,0 igo da Merkataritza, eta Gipuzkoan % 1,5 hazi da, baina Bizkaian % 0,9 jaitsi da, hori guztia 2018ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta prezioen eragina kenduta.

Euskal AEko Merkataritzan lan egiten duten langileen indizeak ez du aldaketarik izan (% 0,0) urte arteko aldiari.

**Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Merkataritza.
Prezio finkoak. Behinbehineko datuak. IV/2019**

	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	0,5	0,2	1,0
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	6,0	2,6	-1,1
Handizkako merkataritza	-0,3	0,6	1,6
Txikizkako merkataritza	0,2	0,0	0,9
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	3,0	0,8	2,2
Bizkaia	-0,9	-0,1	0,4
Gipuzkoa	1,5	0,3	1,5
ENPLEGUA	0,0	-0,3	0,8

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

At/A(t4) Orainarteko urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

2019ko urteko balantzea

Urte osoan, Merkataritza-sektoreko salmentek % 1,0ko igoera metatua izan dute; handizkako merkataritzak % 1,6 eta txikizkakoak % 0,9 egin dute gora, eta ibilgailu motordunen salmenta eta konponketak, berriz, % 1,1 egin du atzera.

Arabaren, Merkataritza-sektoreko salmentak % 2,2 igo dira; Bizkaian, % 0,4; eta Gipuzkoan, % 1,5; hori guztia, prezio konstanteetan.

Merkataritza-sektorean lan egiten duten langileen kopurua % 0,8 igo zen 2019an, aurreko urteko batezbestekoaren aldean.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62